

Hitzaurrea

Bada bizpahiru urte, euskal unibertsitateetako zenbait Ekonomia eta Enpresa irakasleek, urtero biltzeko parada baten beharra ikusi genuela gure ikerketa lanei buruz elkarrekin jarduteko. Aldi berean, Eusko Ikaskuntzako Gizarte Zientziak eta Ekonomia sailean, bertako jarduerak berbideratzeko apustua egitear geunden. Arrazoi bat edota bestea dela, aproposa iruditu zitzaigun guztion interes amankomuna elkarlanean asetzea. Azkoagako ale hau, elkar lan honen emaitzetako bat da, hain zuzen.

Hastapenetik, protagonismoa gazteei eman nahi izan genien. Euskal Herriko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Pabeko Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean doktoradutza programa burutzen ari ziren ikasleei beren lanak aurkezteko aukera luzatu genien. Unibertsitate bakoitzetik, doktoradutza programa burutzen ari ziren hiru ikasle gonbidatu genituen, beren tesian oinarritutako lan laburtu bat 2012ko ekainean Deustuko Unibertsitatean antolatu genuen jardunaldian aurkezteko.

Doktoregaiantzat, gutxienez, bi esperientzia mota jorratu nahi genituen jardunaldi honetan: batetik, beren ikerketa lana aurkeztu, defendatu eta besteekin konpartitzeko gaitasuna hobetzearena; bestetik, beren ikerketa lana aldizkariren batean argitaratzeko prozesua bizitzearena. Bi esperientzia motak, ikerlari kideen sarea osatu eta ikerketa lana argitaratzea, garrantzitsuak dira lanbide akademikorako. Jardunaldian parte hartu duten doktoragaiek horretarako beta eduki dute.

Jardunaldia, euskal unibertsitate bakoitzean zein ikerketa burutzen ari ginen ezagutzeko aukera ezinhobea izan zen. Bilgune honek, unibertsitate ezberdinetako ikerlari taldeek gai berdin bat elkarrekin ikertzeko aukera zabaltzen du; hots, ekonomi alorreko gaiak ikertzeko euskal unibertsitate ezberdinek elkarrekin bat egiteko aukera.

Guztira, jardunaldian parte hartu zuten sei artikulua aukeratu ditugu Azkoaga ale honetarako. Jardunaldian parte hartu zuten aukeratutako ikerketa lanen egileak honakoak dira: Rafael Altuna, Paula Arzadun, David Cembrero, Enekoitz Etxezarreta, Jose Luis Gonzalez-Pernía eta Heiko Unzalu. Esan behar, Eusko Ikaskuntzatik bi artikulua saritu zirela bidai boltsa batekin ikerketa lan egileek kongresuren batera bidaia ordaindu ahal izateko.

Rafael Altunak AMPO enpresa izan du aztergai eraldaketa instituzionala ulertzeko. 2003tik aurrera izandako prozesua aztertu du egileak hiru ardatz dituela: inkulturazioa, lidergo eraldatzailea eta berringeniaritza. AMPOk izandako emaitza kuantitatibo eta kualitatibo positiboak aipatutako kontzeptuekin uztartzen dira artikuluan.

Paula Arzadun-ek ekonomiaren globalizazio eta merkatuen konplexutasun geroz eta handiagoa azpimarratu du bere artikuluan. Egoera honetan, MONDRAGON korporazioak dauzkan erronkak aztertzen ditu, kooperatibismoaren ikuspuntutik. Halaber, GPPE (Globalización del Proceso Productivo Establecido) esperientzien inpakto sozioekonomikoa eta RSCoop (Responsabilidad Social Cooperativa) dimentsioa aztertzen ditu egileak.

David Cembrero eta Josune Saenz-ek “ambidexterity” kontzeptua jorratzen dute. Alegia, enpresek berrikuntza esploraziorako eta esplotaziorako gaitasun orekatua garatzeko ahalmena aztertzen duen alorra ikertzen dute. Berrikuntza teknologirako esplorazio eta esplotaziorako zenbait ezaugarri aztertzen dituzte egileek, eta ezaugarri horiek zenbait euskal enpresen emaitzekin (etekinak eta hazkundeak) uztartzen dituzte.

Enekoitz Etxezarreta, Baleren Bakaikoa eta Mikel Zurbano-k hirugarren sektorea zaintzen krisiaren aurrean aztertzen dute. Honetarako, Euskal Autonomi Erkidego eta bereziki Gipuzkoako persona nagusiei eskainitako gizarte-zerbitzuen azterketan oinarritzen dira egileak. Enpresa-egitura indartsuagoak eta espezializatuagoak izatera gomendatzen dute egileek, hala nola, boluntarioratza lanetan jarduten duten elkarteek beren finantziario-bideak dibertsifikatzera. Besteak beste, artikuluan gizarte ekonomia ereduak goraitzen da.

Jose Luis Gonzalez-Perniak, euskal enpresa gazteen atzerriratzea ikertzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa lagina batean oinarrituz, produktibitate desberdintasunak aztertzen ditu egileak atzerriratu eta atzerriratu-ez diren enpresen artean. Lanak, atzerriratzen diren euskal enpresa gazteak emaitza hobekak lortzen dituztela ondorioztatzen du. Are gehiago, lehenago atzerriratzen direnak, oraindik produktibitate emaitza hobekak lortzen dituzte.

Heiko Unzalu-k berrikuntza sistema erregionalak aztertzen ditu. Ezagutzarako distantzia mesedegarria izan badaiteke ere ezagutza elkar trukatzeko, gehiegizko gertutasun bat kaltegarria izan daiteke berrikuntza sustatzeko. Oreka nola aurkitu aztertzen du egileak, EUko 27 herrialdeetako informazioa erabiliz. Ezagutza tazito eta kodifikatuaren arteko oreka egokia aurkitzea ezinbestekoa dela ondorioztatzen du artikulua, nazioartekotze eta berrikuntza irikiago bat bitarteko direla.

Hitzaurrea amaitzeko, nire eskerrik beroena luzatu nahi diet jardunaldia eta Azkoaga ale honen argitarapena posible egin duten guztiei. Bereziki, Eusko Ikaskuntzatik jardunaldia eta argitarapena bideratu duten guztiei: Eva Elorza, Eva Nieto, Joana Martínez, Leti Padrones, eta Beatriz Akizu. Deustuko Unibertsitatea, jardunaldirako ipini dituen baliabide eta erraztasun guztiengatik. Euskal unibertsitateko irakasleak, jardunaldian eta Azkoagarako egin duten ebaluazio eta ahalegin guztiengatik: Eduardo Malagón, Iñaki Heras, Martín Larraza, Mikel

Navarro, Saioa Arando eta Miren Larrea. Eta begirune handiz, prozesu guztian, antolakuntza lanetan lagundu didan Xabier de la Maza lagunari.

Azkenik, artikuluen egileak eskertu nahi ditut bereziki. Azkoaga ale honetako artikulu bilduma Euskal unibertsitateetan doktoregaiak jorratzen ari diren ikerketa lanen islada bat besterik ez da. Beraien ekarpena baliozgarria eta interesgarria izango zaizulakoan agurtzen zaitut, irakurle hori.

Iñaki Peña
Gizarte eta Ekonomiak Zientziak
Saileko Lehendakaria

Prólogo

Hace dos o tres años que algunos profesores de Economía y Empresa de distintas universidades vascas vimos la necesidad de reunirnos anualmente para tratar entre nosotros de los trabajos de investigación que estábamos desarrollando. Por la misma época, en el seno Sección de Ciencias Sociales y Económicas estábamos a punto de apostar por la reconducción de las actividades de la misma. Por una y otra razón, nos pareció adecuado satisfacer interés común de todos nosotros por medio de la colaboración. Este número de Azkoaga es precisamente uno de los frutos de esta colaboración.

Desde el principio quisimos dar protagonismo a los jóvenes. Ofrecimos la oportunidad de presentar sus trabajos a los alumnos que estaban realizando el programa de doctorado en la Universidad del País Vasco, Universidad Pública de Navarra, Universidad de Pau y Universidad de Deusto. Invitamos a tres alumnos de cada universidad que estaban realizando el programa de doctorado, para que presentaran un trabajo resumido basado en sus tesis en la jornada que al efecto organizamos en la Universidad de Deusto en junio de 2012.

En dicha jornada cara a los doctorandos queríamos profundizar en, al menos, dos tipos de experiencia: por una parte, la mejora de su capacidad para presentar, defender y compartir con los demás su trabajo de investigación; y por otra parte, la de vivir el proceso de publicación de su trabajo de investigación en alguna revista. Ambos tipos de experiencia, la constitución de una red de compañeros investigadores y la publicación del propio trabajo de investigación, son importantes para el trabajo académico. Los doctorandos que han tomado parte en la jornada han tenido tiempo para todo ello.

La Jornada constituyó una oportunidad inmejorable para conocer la investigación que se está llevando a cabo en cada universidad vasca. Este punto de encuentro abre la oportunidad a grupos de investigadores de distintas universidades para que investiguen un mismo tema conjuntamente; es decir, la oportunidad de que distintas universidades vascas investiguen conjuntamente temas del área económica.

En total, hemos seleccionado seis artículos que participaron en la jornada para este número de Azkoaga. Los autores de los trabajos de investigación que participaron en la jornada son los siguientes: Rafael Altuna, Paula Arzadun, David Cembrero, Enekoitz Etxezarreta, Jose Luis González-Pernia y Heiko Unzalu. Hay

que señalar que Eusko Ikaskuntza premió a dos de los artículos con una bolsa de viaje para que los autores de los trabajos de investigación puedan costearse el viaje a algún congreso.

El objeto de estudio del trabajo de Rafael Altuna ha sido la empresa AMPO para comprender la transformación institucional. El autor ha analizado el proceso desarrollado desde 2003 en sus tres ejes: inculturación, liderazgo transformador y reingeniería. En el artículo se vinculan los resultados cuantitativos y cualitativos logrados por AMPO con los mencionados conceptos.

En su artículo Paula Arzadun hace hincapié en la globalización de la economía y la cada vez mayor complejidad de los mercados. Analiza los desafíos que en esta situación ha de afrontar la Corporación MONDRAGON, desde la perspectiva del cooperativismo. Así mismo, la autora examina el impacto socioeconómico de las experiencias GPPE (Globalización del Proceso Productivo Establecido) y la dimensión RSCoop (Responsabilidad Social Cooperativa).

David Cembrero y Josune Saenz analizan el concepto de “ambidexterity”. Es decir, investigan el campo que trata de la capacidad de las empresas para desarrollar la innovación para la exploración y la explotación equilibrada. Los autores estudian algunas características de la innovación tecnológica para la exploración y la explotación y vinculan dichas características con los resultados (rendimientos y crecimiento) de algunas empresas vascas.

Enekoitz Etxezarreta, Baleren Bakaikoa y Mikel Zurbano estudian el tercer sector ante la crisis de la asistencia. Para ello, los autores se basan en el estudio de los servicios sociales que se ofrecen a las personas mayores de la Comunidad Autónoma Vasca y, particularmente, de Gipuzkoa. Los autores recomiendan la constitución de estructuras empresariales más fuertes y especializadas, y también la diversificación de las vías de financiación de las asociaciones que actúan en trabajos de voluntariado. Entre otras cuestiones, en el artículo se elogia el modelo de la economía social.

Jose Luis González-Pernia investiga la salida al extranjero de las jóvenes empresas vascas. Tomando como base una muestra de empresas de la Comunidad Autónoma Vasca, el autor examina las diferencias de productividad entre las empresas que han salido al extranjero y las que no lo han hecho. El trabajo concluye que las empresas jóvenes que trabajan en el extranjero consiguen mejores resultados. Es más, las empresas que antes salen al extranjero todavía obtienen mejores resultados de productividad.

Heiko Unzalu estudia los sistemas regionales de innovación. Aunque la distancia pueda resultar favorable para el conocimiento, para el intercambio de conocimiento, una proximidad excesiva puede resultar perjudicial a la hora de promocionar la innovación. El autor analiza el modo de encontrar un equilibrio, utilizando información procedente de 27 países de la UE. El artículo concluye que resulta imprescindible encontrar un equilibrio entre el conocimiento tácito y el codificado, siendo la internacionalización y una innovación más abierta un medio para conseguirlo.

Para finalizar el prólogo, quiero expresar mi más caluroso agradecimiento a todos los que han hecho posible tanto la jornada como la edición de este número de Azkoaga. Especialmente a todas las personas que desde Eusko Ikaskuntza han encauzado la jornada y la edición: Eva Elorza, Eva Nieto, Joana Martínez, Leti Padrones y Beatriz Akizu. A la Universidad de Deusto, por todos los medios empleados y facilidades dispensadas para la realización de la jornada. A los profesores de las Universidades Vascas, por las evaluaciones y esfuerzos desarrollados en la jornada y en la publicación Azkoaga: Eduardo Malagón, Iñaki Heras, Martín Larraza, Mikel Navarro, Saioa Arando y Miren Larrea. Y muy respetuosamente, al amigo Xabier de la Maza que me ha ayudado en las tareas de organización durante todo el proceso.

Finalmente, deseo agradecer particularmente a los autores de los artículos. La colección de artículos contenidos en el presente número de Azkoaga no es sino un reflejo de los trabajos de investigación que están desarrollando los doctorandos en las distintas Universidades Vascas. Con el deseo de que su aportación resulte tan valiosa como interesante, estimado lector recibe un atento saludo.

Iñaki Peña
*Presidente de la Sección de Ciencias
Sociales y Económicas*